

## 'Bildu Hernani' plataforma berriak lanera animatu ditu Hernaniko abertzale eta ezkertiarak

■ Plataforma berria hiru puntutan oinarritzen da, bultzatzaileen esanetan: autodeterminazioa; ikuspegi herrikoia eta ezkertiarra; eta baldintza demokratiko gabezia salatzea ■ Martxoaren 11an, Batzar irekia deitu dute.

OSTIRALEAN Hernani mailako plataforma berria aurkeztu zuten Biterin: *Bildu Hernani*. Bultzatzaileek esan zuten, plataforma berria helburu nagusi baten inguruan sortu da: Hernaniko abertzale eta ezkertiarak biltzea.

Hiru zutabe nagusi izango ditu plataformak: Autodeterminazio eskubidea; ikuspegi ezkertiar eta herrikoia; eta baldintza demokratikorik eza salatzea.

**Aurpegi ezagunak eta berriak** Ekitaldian aurpegi ezagunak eta berriak ikusi ziren, eta denek aipatu zuten lan egiteko prest zegoen guztiak izango zuela lekua plataforma berrian. Hizlari guztiak salatu zuten behin eta berriz zapaltzen direla euskaldunen baldintza demokratikoak, eta espezio egoera bat bizi duela Euskal Herriak.

Plataformako gazteen ize-nean, Aiert Larrartek azpimarratu zuenez, "lanean hasi beharra dago, guk egin behar dugu zerbait. Ezin gara zai egon, bestela beste norbaitek hartuko digu aurrea. Eta azken boladan garbi ikusi dugu besteek gauzak nola egiten dituzten".

Ixiar Minerrek besteak beste adierazpen askatasuna

eta euskeraren alde hitz egin zuten, eta herritarren borondatean oinarritutako herri bat eskatu zuten.

Agustin Ezponda alkate ohiak esan zuten herritarrengandik gertu egon nahi duen plataforma dela *Bildu Hernani*, eta konpromisoa eskatu zion jendeari "Ietik 10-era, batzuek dena aportatuko dute eta beste batzuk gutxiago, baina guztiok utzi behar dugu zerbait".

Nekane Igarri-zek EAJeta EAren "proiektu autonomista" eta PPren politika kritikatu zituen, eta horien aurrean politika ezkertiar eta abertzalea aldarrikatu zuten, "irekia izango dena, eta jendearen borondatean oinarritua".

**Martxoaren 11an, Batzar irekia** Bukaeran, hizlariak aipatu zuten, martxoaren 11an Batzar irekia izango dela, eta bertara dei egin zien

azaldu nahi zuten guztiei.

### Hauteskundeak

Ostiraleko bileran ez zen hauteskundeen gaia askorik aipatu, baina, esan zuten martxoaren 11an izango den Batzar irekian tratatuko dute

gai hori, beste puntu askoren artean.

**Ekitaldi luzea eta jendetsua** *Bildu Hernani* plataformaren aurkezpen ekitaldiak ordu bete iraun zuten, eta 300 lagun inguru bildu zituen. □



Biteriko areto nagusian 300 lagun inguru bildu zituen plataforma berriak. K. Corbella

## ■ ERRUGBIA

### Hernani-Durango, gaur Landaren

HERNANIK Durango taldearen kontra jokatuko du gaur, Landaren, Lehenengo Liga Nazionalen. Durango laugarren dijoa Hernani adinaxe punturekin eta gaur irabazten duenak lortuko du hirugarren postua. Bestalde, gaurko partidua berezia izango da hernaniarrentzat, gaur jokatuko baitute Landaren lehenengo partidua, azkena izan ziren uholdeak ezker. Oraingoan ziur daude jokatzeke moduan izango dela zelaia. Partidua 12:00etan da Landaren. □

## ■ FUTBOLA

### Hernani-Touring gaur Zubipen

HERNANIKO Gorengo taldeak Touring-en kontra jokatuko du, gaur, Zubipen. Hernaniarrek inoiz baino behar haundiagoa dute irabazteko, horrek lasaitasun ederra emango liekeelako. Gaur 16:30etan Zubipen.

**Emakumezkoek enpatearekin bukatu dute liga, 1-1** Emakumezkoek atzo zuten ligako azken partidua eta 1-1 enpatatu zuten. Hernani 3 edo 4 postuetan geldituko da. □

## EUSKALDUNON EGUNKARIA

### Kontzentrazioa bihar Gudarien plazan

HERNANIKO Euskalgintzako zenbait taldek kontzentrazioa egingo dute bihar Gudarien plazan. Adierazi dutenez, Euskaldunon Egunkaria ixtea euskal prentsaren eta adierazpen askatasunaren kontrako eraso da. Horregatik, kontzentrazioa deitu dute biharko, gogoratu araziz, Pello Zubiria eta beste atxilotuak bihar pasako dituztela epailearen aurretik deklarazioa hartzera.

Kontzentrazioa 12:00etan izango da, eta hernaniar guztiei deitzen diete bertara azaltzeko. □

### Iñude eta Artzairen konpartsa gaur

URUMEA Ikastolak antolatuta, 120 lagunek antzetzuko dute gaur, Iñude eta Artzairen konpartsa. 12:00etan ikastolatik atera eta kaxkoan ibiliko dira. □

### Ur jolasak gaur

KIROL Patronatuak antolatuta, ur jolasak izango dira gaur, Hernaniko igerilekuan. Ume guztiak joan daitezke, gaur, 10:30etatik 12:30etara. □

### Peña Otañoko batzarra

PEÑA Otañok urteroko batzarra du gaur goizean elkartean bertan. Batzarrera sozio guztiak daude deituta. Aurreneko deialdia 10:00etan da eta bigarrena 10:30etan. □

### Zuhaitz eguna gaur

ZUHAITZ Egunean gaur helduen txanda. 08.00etan plazan. □

### Aranoko Karnabalak

ARANON Karnabalak dituzte gaur egun guztian. Goizean 07:30etan *Puxka biltzera* aterako dira. Eguerdian bazkaria egingo dute, eta arratsaldean 17:30ak aldean Zagi Dantza. □

MASAJEA  
KIROL MASAJEA  
KIROPAXIA  
Tlf: 943 333 515 / 636 571 110  
Gaizka Mendikute  
Latxunbe Berri 34- 4.A- HERNANI

ARALAR  
TABERNA  
Zapa 8 - Tel.: 943 33 15 06 -

JOMERIKI  
EDARITEGI  
Kale Nagusia, 7  
55 00 32  
HERNANI

INFORMATIKA ARETOKO  
IKASTAROAK  
EXCEL 2000  
Martxoaren 3-tik 7-ra  
ACCESS 2000  
Martxoaren 17-tik 21-ra  
WINDOWS 98 +  
INTERNET  
Martxoaren 15-tik Apirilaren 5-ra  
Informazioa:  
Larramendi 11, behe. Tlf: 943 551000  
Orduetgia: 15-tik 21.30-ra. (larunb.:9 -tik 14.-ra)  
Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udala Patronatua  
Europako Gizarte Fonda

SANTA BARBARA  
PEUGEOT  
Tailerrak: Larramendi 15 - Exp: Arantzazu 15 -Tel. 943 551 139 - 943 551 979  
Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskukoak aldatzen ditugu  
Jeep Cherokee 2.5 TDI SS-BB  
SAAB 2000 Coupe 1.995 urtekoa  
Fiat 1 Diesela GI-AY  
Opel Astra Diesela NA-AK  
Renault Megane Coupe Sport SS-BJ  
Renault Express Diesela SS-AS  
Lada Niva Gasolina SS-AP  
1.000 eta 2.000 eurotan beste hainbat kotxe  
.....eta hainbat kotxe merke.



Euskal Ligako nesken taldea. Liga bukatzeko bi partidu falta dira eta hirugarren dihoaz.

## Hernanik aurre egin zion UPNA liderrari, galdu arren

■ Partidu gogorra jokatu zuen Hernanik eta 8-9 galdu zuten liderraren kontra  
■ Gaur bigarren Euskal Ligan Hernanik Tximistarraren kontra du, etxean.

HERNANIKO kiroldegian emozioz betetako partidua jokatu zuten atzo neskek, Euskal Ligan. UPNA liderraren kontra zuten partidua, eta 8-9 galdu zuten, baina, irabazteko aukera ere izan zuten hernaniarrek. Lehenengo bi zatiak kaxkar xamarrek egin zituen Hernanik eta hori aprobetxatu zuen liderrak diferentzia hartzeko. Azkeneko denboran berriz, hernaniarrek

beste joku bat erakutsi zuten, eta liderra kolokan jartzeraino iritsi ziren. Hernaniarrek hirugarren daude sailkapenean, eta bi partidu gelditzen dira liga bukatzeko. Hurrengo partidua bigarrenen kontra dute: Leioa. Eba Pastor entrenatzaileak Kronikari jakin arazi dionez, sailkapena ez da asko aldatuko hemendik aurrera eta Koparako prestatzen hasi beharko dute, "oso maila

onean jokatzen ari gara, eta giro ezin hobea daukagu taldean, aurrera jarraitzeko".

**Hernani-Tximistarri, gaur** Bigarren Euskal Ligan, mutilen taldeak Tximistarri liderra hartuko du, gaur, Hernaniko kiroldegian. Hernaniarrek sailkapenean erdiz behera daude, baina, aurten erakutsi dute gauza direla edozein gaizki hartzeko. Gaur, 13:00etan. □



Larrarte aiarra eta Zabala hernaniarrek Urretxuko Lasa - Zabala bikotea izango dute aurrean.

## Hiru hernaniarrek jokatuko dituzte semifinalak gaur, 22 urtez azpiko Txapelketan

■ Alvarez, Zabala eta Erroizenea dira semifinaletara iritsi diren 3 hernaniarrek ■ Manzidor eta Martinezek galdu egin zuten Euskadiko Txapelketako lehen finalerdia.

22 urtez azpiko Txapelketa semifinaletara iritsi da, eta gaur jokatuko dira Hernaniko kiroldegian. Euskal Herriko pelotari gazte onetsuenek hartu dute parte txapelketan, eta semifinaletara hiru hernaniar iritsi dira: Alvarez, Zabala eta Erroizenea.

Lehenengo partidua Zabala eta Larrartek jokatuko dute Urretxuko Lasa eta Zabalaren kontra, eta bigarrenen bi hernaniar neurtuko dira elkarren kontra. Alvarez, Larrarte aiarrekin arituko da, eta Erroizenea, Arruti usurbildararekin.

Finalerdiak 11:00etan hasita jokatuko dira, kiroldegian.

**Manzidor-Martinezek galdu** Manzidor eta Martinez Euskadiko Txapelketako semifinaletan daude eta lehen partidua galdu egin dute: 30-22. □

## EA-EAJk Antziola-Latsunbe enlazeko lanak berehala gelditzeko eskatu du

■ Koalizioaren ustez, 'Villa Oriamendi'ko Haritza babes-tu beharrak, proiektua nabarmen aldatzea dakarki.

HERNANIKO EA-EAJk prentsa oharrean kaleratu duenez, koalizioak exijitzen du Antziola-Latsunbe enlazeko obrak berehala gelditzeko. Hori eskatzeko arrazoia da, Udalak *Villa Oriamendi*-ko Haritz Haundia babesteko hartu duen konpromisoa. "Horren ondorioz informe bat eskatu da Diputazioko Ingurugiro Sailean eta haren erantzunak dio, Haritzaren inguruko 5 metroak babestu egin behar direla pareta baten bitartez". EA-EAJren iritziz, Haritz Haundiaren inguruan 5 metrora pareta bat egin behar bada, horrek izugarritzko alda-

keta egitea suposatuko luke Antziola-Latsunbe enlazearen proiektuan.

EA-EAJk dioenez, "pareta hori egiteak enlazearen traza-dua aldatuko du, bidea estutu, eta villaren ondoko espaloia desagartu egingo da. Gure ustez, hor hartu beharreko neurriek proiektua nabarmen aldatzea eta plana berrikustea dakarkite, eta presupuesto igoera haundi bat ere bai".

Prentsa oharrean bukatu, EA-EAJk obren paralizazioa eskatzen du "obrako teknikoek beharrezko aldaketak presentatu eta Korporazioak onartzen dituen bitartean". □

## BERTSOLARITZA

### Orixe sarian, Iñaki Zelaia eta Estitxu Eizagirre hernaniarrek finalera

AÑORGAKO Orixe bertso sariketara urte biz behin jokatzen da, eta aukera bat eman nahi izaten zaie plazaz plaza gehiegi ez dabilzan bertsolariei.

Aurtengo Orixe sarian hiru kanporaketa egingo dituzte, eta kanporaketa bakoitzeke lehenengo biak pasako

dira finalera. Lehenengo kanporaketa joan den ostiralean jokatu zen, eta Iñaki Zelaia eta Estitxu Eizagirre hernaniarrek gelditu ziren aurrenbigarren, Naikari Gabilondo, Unai Sukia, Oihane Perea eta Alfontso Jimenezen aurretik.

Hurrengo finalerdia ostiralean jokatuko da. □

### Microsoft Access eta Microsoft Excel ikastaroak Udal Informatika aretoan

UDAL Informatika aretoak antolatuta, Microsoft Access eta Microsoft Excel ikastaroak emango dira, informatika pittin bat dakien jendearentzat. Ikastaroak 20 ordukoak izango dira, eta arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara eman-

go dira, martxoaren hasieratik aurrera.

Informatika aretoko arduradunak esan digunez oraindik badago lekua apuntatzeko. Interesatuak deitu honako telefono honetara: 943-551000. □

## ZERBITZUAK

### ☎ TELEFONOAK

► Taxiak: 943 550093  
► Udaltzaingoa: 943 333288  
► DYA: 943 464622  
► Autobusak: 943 556662  
► Anbulatorioa: 943 006666  
► Jokalari anonimoak: 943 331103

### ☎ FARMAZIAK

► Eguez: Bilbao-Sagastiberri Urbieta 7  
☎ 943 552941  
► Gauzez: Tanco Urnieta. San Juan 36  
☎ 943 550942

## IRAGARKI MERKEAK

Komertziala behar da Donostialderako. Kotxea beharrezkoa. Deitu: 661 52 38 39  
Gela bat alokatzen da, bulegoko lanak, klase partikularrak edota masajeak emateko. Zentroan. Interesatuak deitu: 943 55 10 92  
Aireportuetako hegaldi KONTROLADOREA. AENaren konbokatoria. Ezinbestekoa: Diplomatura edo lizentziatura. Ingelesa. ADOZ: 943 44 45 09  
AUTOESKOLAKO IRAKASLE. Parorik gabeko lanbidea. Sarrera garrantzitsuak. Presta zaitetz. ADOZ: 943 44 45 09  
GUARDA FORESTALA. Euskal Herriko parke eta erreserba naturaletan lan egin ezazu. Ezinbestekoa: Graduatua. Presta zaitetz. ADOZ: 943 44 45 09  
BONBEROAK. Euskal Herriko parkeetan egin ezazu lan. Lan baldintza bikainak. Ezinbestekoa: Graduatua. ADOZ: 943 44 45 09  
TRANSPORTISTA. Transportean ibiltzeko behar den gaitasun titulua lortu ezazu. ADOZ: 943 44 45 09  
ADMINISTRARI AUXILIARRAK. Udaletarako deialdiak. Ezinbestekoa: Graduatua. Presta zaitetz. ADOZ: 943 44 45 09  
UDALTZAIN bezala lan egin ezazu Udaletan. Datozen deialdiarako. Ezinbestekoa: Graduatua. Presta zaitetz. ADOZ: 943 44 45 09  
Udal Liburutegietan AUXILIAR. Datozen deialdiarako. ADOZ: 943 444509  
BANKU eta AURREZKI KUTXAtarako auxiliarrak behar dira. Ezinbestekoa: B.U.P. Datozen deialdiarako. Presta zaitetz. ADOZ: 943 44 45 09  
Txofer, elektrizista, kontserje, operario,... Udaletan lan egin ezazu. ADOZ: 943 444509